

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea kreditua gehitzeko 3/2024 espedienteari

Udalbatzak, 2024ko uztailaren 17an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onspena ematea kreditua gehitzeko 3/2024 espedienteari.

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera; epe horretan, interesa dutenek aukera izango dute espedientea aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da kreditua gehitzeko espedientea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Erdoña, 2024ko uztailaren 24a

*Alkatea*

*ERIKA LETAMENDI HURTADO*